

## **ELGOIBARKO EUSKAL LORE-JOKOAK EDO EUSKAL JAIK**

Euskara eta euskal kultura sustatzea zen haien helburua. Mugaz bi aldeetako intelektualak biltzen ziren eta etengabe trukatu ziren kultura mailako ideiak eta proposamenak.

Gipuzkoako Euskal jaietako lehendakaria Laffitte jaunak, 1907an Elgoibarren emandako hitzaldian, zioen bezala, Lore-jokoak euskal kulturako erakundeak dira, eta hargatik probintzia eta udal gorporazioen laguntza jasotzen dute. Eta biziki erregutu zien erakundeoi jarrai zezaten laguntza ematen. Eta aurrerago eranstean zuen...”*Poco a poco, y gracias a la constante propaganda que en su favor viene haciéndose estos últimos años, el antiquísimo y admirable idioma de los euskaldunas que algunos juzgaban muerto ya, va saliendo de la postración y el olvido en que yacía por nuestra criminal indiferencia...*”

Euskal kulturaren berpizkunde honetan, Euskal Jaiekin batera garrantzi handia izan zuten sortutako kultura-elkarte euskaltzaleek.

**PELLO ARRIETA SORAIZ**

Elgoibarren 2005eko urriaren 20an